



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

X. legegintzaldia

Iruña, 2021eko uztailaren 28a

93. ZK.

A U R K I B I D E A

F SAILA:

Galderak:

- Galdera, energia berriztagarrien proiektuetan udal autonomia errespetatzeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (2. or.).
- Galdera, Aroztegiko Konpentsazio Batzordeak 2020ko ekainaren 15eko 13/2020 epaiaren aurka jarritako kasazio-errekurtsoan Gobernua pertsonatzeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (4. or.).
- Galdera, tresneria medikoaren erosketa dela-eta Nafarroako Osasun Zerbitzuan detektatutako ustezko delituari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (5. or.).
- Galdera, emakume ezkongabeek in vitro ugalketarako tratamendua eskuratzeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (8. or.).
- Galdera, Osasun Aholkuaren Zerbitzuaren 948290290 telefono zenbakian eta 948370120 telefono zenbakian COVID-19aren aurkako txertoa dela-eta artatu gabeko deiei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (9. or.).
- Galdera, Kulturen arteko Bitartekaritza Zerbitzuak COVID-19arekiko sentsibilizazio sare bat abian jartzeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (10. or.).
- Galdera, Caparrosoko udalerrian dagoen esnetarako behi-azienden instalaziorako Valle de Odieta SCLri ingurumen-baimen integratua emateari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (11. or.).
- Galdera, COVIDa dela-eta sentsibilizatzeko sareei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (13. or.).
- Galdera, azaroaren 11ko 82/2020 Foru Dekretuan Nafarroako Justizia Auzitegi Nagusiko lehendakariaren eta Foru Gobernuko Justizia kontseilariaren baterako lehendakaritza kentzeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (17. or.).
- Galdera, Nafarroan enpresek sozietateen gaineko zergan ordaintzen duten tasa efektiboari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (17. or.).

G SAILA:

Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:

- Nafarroako kultur jarduera duintzeko, egonkortzeko, areagotzeko eta haren etorkizuna bermatzeko neurriak zehaztu eta adostearren sorturiko Ponentziaren txostena. Kultura eta Kirol Batzordeak onetsia (22. or.).

F saila:
GALDERAK

Galdera, energia berriztagarrien proiektuetan udal autonomia errespetatzeari buruzkoa.**FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA**

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Laura Aznal Sagasti andreak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, energia berriztagarrien proiektuetan udal autonomia errespetatzeari buruzkoa. Galdera 2021eko maiatzaren 14ko 63. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2021eko ekainaren 10ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Laura Aznal Sagasti andreak 10-21/PES-00167 espedienteko galdera aurkeztu du, zeinean argibideak eskatzen baititu proiektu eoliko eta fotovoltaikoen eskaerak izapidetzeko eta ebazteko prozesuetan Nafarroako udal eta kontzejuek beren autonomia baliatuta hartutako erabaki edo akordioei buruz. Honako hau da Garapen Ekonomiko eta Enpresarialeko kontseilari Mikel Irujo jaunak horri buruz informatu beharrekoa:

1. Nafarroako Gobernuak errespetatuko al ditu, proiektuen eskabideak izapidetzeko eta ebazteko prozesuetan, Nafarroako udal eta kontzejuek beren autonomia baliatuta hartutako erabaki edo akordioak?

Parke eoliko eta fotovoltaikoen baimen administratiboa honako hauen bitartez araututa dago:

– 24/2013 Legea, abenduaren 26koa, Sektore Elektroari buruzkoa.

– 1955/2000 Errege Dekretua, abenduaren 1ekoa, Energia elektrikoaren garraio, banaketa, merkaturatze eta hornidurarako jarduerak eta instalazioak baimentzeko prozedurak arautzen dituen.

– 21/2013 Legea, abenduaren 9koa, ingurumen-ebaluazioari buruzkoa.

Bestalde, Nafarroako Foru Komunitateak beraiazko araudia badauka; honako hau, hain zuzen:

– 56/2019 Foru Dekretua, maiatzaren 8koa, zeinaren bidez arautzen baita parke eolikoetarako baimena Nafarroan.

– 64/2006 Foru Agindua, otsailaren 24koa, Ingurumen, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza kontseilariak emana, lurzoru urbanizaezinean eguzki-energia aprobetxatzeko instalazioak ezartzeko aintzat hartuko diren ingurumen eta hirigintza arloko irizpide eta baldintzak arautzen dituena

Maiatzaren 8ko 56/2019 Foru Dekretuak parke eolikoetarako baimena arautzen du Nafarroan. Dekretu horrek energia-gaietan eskumena duen departamentuaren baimen prozedura bat artikulatzen du, ingurumen ebaluazioa egiteko eta lurzoru urbanizaezinean baimenak emateko prozedurekin koordinatuta.

Hartan xedatutakoaren arabera, Lurralde Antolamenduko Zuzendaritza Nagusiak eta Ingurumeneko Zuzendaritza Nagusiak parke eolikoak eta haiei lotutako ebakuazio-instalazioak baimentzeko prozeduran esku hartzen dute, kontsulta-txosten batekin, eta, ondoren, ingurumen-inpaktuaren adierazpen batekin, Ingurumeneko Zuzendaritza Nagusiaren kasuan, eta lurzoru urbanizaezinean baimendu daitezkeen jardueren baimen batekin, Lurralde Antolamenduko Zuzendaritza Nagusiaren kasuan (Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko Foru Legearen testu bategina onesten duen 1/2017 Legegintzako Foru Dekretuaren bidez araututakoa).

Bestalde, otsailaren 24ko 64/2006 Foru Aginduak lurzoru urbanizaezinean eguzki-energia aprobetxatzeko instalazioak ezartzeko aintzat har-

tuko diren ingurumen eta hirigintza arloko irizpide eta baldintzak arautzen ditu

Proiektu batek (eolikoa edo fotovoltaikoa) ingurumen-inpaktuaren adierazpen aldekoa lortzen badu, bai eta lurzoru urbanizaezinean baimendu daitezkeen jardueren baimena ere, eta aplikagarria den araudi teknikoa betetzen badu, Zuzendaritza Nagusi honek, aplikatu beharreko arauditik aldenduz, ezin izanen du bere baimena ukatu proiektu bat ezartzearen aurkako udal-erabaki batean oinarrituta.

2. Nafarroako Gobernuak ba al du asmorik udalez gaindiko plan edo proiekturik garatzeko, baldin eta udal edo kontzejuren batek baimentzen ez badu bere ondare- edo herri-ondasunak lagatzea edo erabiltzea proiektu horiek garatzeko?

Otsailaren 26ko 125/1996 Foru Dekretuaren 3. artikulua parke eolikoetarako baimena emateko prozedura arautzen zuen, eta udalez gaindiko plan sektorial bat izapidetzea eskatzen zuen "bi parke eoliko edo gehiago ezarri gogo direnean edo parke eolikoak hartzen dituen lurak udalerrri batenak baino gehiagorenak direnean". Maiatzaren 8ko 56/2019 Foru Dekretuak, Nafarroan parke eolikoetarako baimena arautzen duenak, indarrrik gabe utzi zuen aurreko foru dekretu hori.

Lurzoru urbanizaezinean parke eolikoak udalez gaindiko plan sektorial baten bidez izapidetzea konplexuegia eta beharrezkoa ez zela ulertuta, parke eoliko berriei udalez gaindiko plan sektorial bat izapidetzeko eskakizuna kendu zen foru dekretu berri honetan. Horrenbestez, orain, parke eoliko berriek, lurzoru urbanizaezinean jarduera baimengarriak ezartzeko baimena baizik ez dute behar, Nafarroako lurraldearen antolamenduari eta hirigintzari buruzko Foru Legearen testu bategina onesten duen uztailaren 26ko 1/2017

Legegintzako Foru Dekretuaren 117. artikuluari jarraituz.

Parke fotovoltaikoak ere lurzoru urbanizaezinean baimendu daitezkeen jardueren baimena lortzearen mende daude.

Sektore Elektriakoari buruzko abenduaren 26ko 24/2013 Legearen 54 artikulua onura publikokotzat deklaratzeko energia elektrikoa sortzeko instalazio elektrikoak. Udal edo kontzejuren batek ez badu baimenik ematen bere ondare-ondasunak edo herri-lurrak lagatzeko edo erabiltzeko proiektu horiek aurrera emateko, sustatzaileak aukera izanen luke eskatzeko bere proiektuaren onura publikoa aitortu dadin.

Lege beraren 56. artikuluari jarraituz, onura publikoaren deklarazioak berekin ekarriko du, nolana ere, ondasunak okupatzeko edo ukitutako eskubideak eskuratzeko beharra, eta urgentziazko okupazioa eraginen du, Nahitaezko Desjabetzeari buruzko 1954ko abenduaren 16ko 52. artikulua ondoz ondo. Era berean, dagokion baimena jasotzeko eskubidea ekarriko du, onura publikoaren deklarazioan zehaztutako moduan, instalazio elektrikoa ezartzeko, igartzeko edo okupatzeko Estatuaren edo autonomia-erkidegoen jabari, erabilera edo zerbitzu publikoko edo

ondareko lurretan, edo probintzia edo udalerrien berezko edo erabilera publikoko lurretan, horien obra eta zerbitzuetan eta zortasun publikoko eremuetan.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2021eko ekainaren 10ean

Garapen Ekonomiko eta Enpresarialeko kontseilaria: Mikel Irujo Amezaga

Galdera, Aroztegiko Konpentsazio Batzordeak 2020ko ekainaren 15eko 13/2020 epaiaren aurka jarritako kasazio-errekurtsoan Gobernuaren pertsonatzeari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betetz, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Adolfo Araiz Flamarique jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Aroztegiko Konpentsazio Batzordeak 2020ko ekainaren 15eko 13/2020 epaiaren aurka jarritako kasazio-errekurtsoan Gobernuaren pertsonatzeari buruzkoa. Galdera 2021eko maiatzaren 14ko 63. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2021eko ekainaren 9an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Adolfo Araiz Flamarique jaunak 10-21/PES-00168 galdera idatzia egin du. Hona hemen Lurraldearen Antolamenduko, Etxebizitzako, Paisaiako eta Proiektu Estrategikoe-tako kontseilariak horri buruz jakinarazi beharrekoa:

1.- Lurralde Antolamenduko, Etxebizitzako, Paisaiako eta Proiektu Estrategikoe-tako kontseilariak zergatik ezkutatu zion 2021eko martxoaren 25ean talde parlamentario honi martxoaren 3an jakinarazi zitzaioela departamentuari Aroztegiko urbanizazio-lanen zuinketa-akta sinatu zela?

Ez zitzaion horri esplizituki erantzun; izan ere, galderan eskatzen zen "ea Nafarroako Gobernuak, Aroztegia Jauregiaren inguruan sustatutako turismo-, hotel-, kirol- eta egoitza-eremuaren Udalez gaindiko Plan Sektorialaren Konpentsazio Batzordeko kide den aldetik, jakin al dakien, Kontratu Publikoen Administrazio Auzitegiak uztailaren 23an emandako 64/2019 Erabakia onetsi ondok, batzorde horrek agiria aldatzeko inolako erabakirik hartu ote duen Nafarroako Kontratuen Auzitegiaren erabaki horretara egokitzeko, edo urbanizazioaren esleipenaren lehen faseko obraren esleipenik egin ote den".

2.- Gure talde parlamentarioari erantzun zionean ez zeukan horren berri ala nahita utzi zen informazioa eman gabe, beste galdera batzuei erantzutean eman ahal izateko (zehazki, Geroa Bai talde parlamentarioak aurreikusita izan zitzaizkeen)?

Ez dugu inoiz ere izan informazioa ezkutatzeko asmorik; aitzitik, zure mintzaldiaren bigarren zatiko hausnarketa joria aintzat hartuta, modu generikoan erantzun nion galderari, eta egoeraren berri banuela esan nizan, horri buruzko datu zehatzik eman gabe.

Orobat adierazi behar dizut Parlamentuan emandako erantzuna baldintzatu zuela jakin ez izanak Konpentsazio Batzordeko lehendakariak kasazio-errekurtsoa jarri zuela Auzitegi Gorenean eta Nafarroako Justizia Auzitegi Nagusian, eta errekurtso hori izapidetzeko onartua izan zela; halatan, emandako zenbait azalpen ez zetozen errealitatearekin bat, Justizia Auzitegi Nagusiaren epaia irmoa zelako premisan oinarritzen baitziren. Une honetan, kasazio-errekurtsoa jarri denez eta, hortaz, epaia irmoa ez denez, eta nola ez den epaia behin-behinekoz betearaztea eskatu, ez litzateke Konpentsazio Batzordearen legez kontrako jarduketarik existituko.

3.- Nafarroako Kontratu Publikoen Administrazio Auzitegiaren uztailaren 23ko 64/2019 Akordioaren bidez ebatzi zen "Baztango Aroztegia Jauregiaren inguruan sustatutako turismo-, hotel-, kirol- eta egoitza-eremuaren Udalez gaindiko Plan Sektorialaren Konpentsazio Batzordearen urbanizazio-proiektuaren urbanizazio-obraen lehen faseko obrak kontratatuzeko baldintzak arautzen dituen agiria" dela-eta aurkeztutako erreklamazio berezia, eta Nafarroako Auzitegi Nagusiko administrazioarekiko auzien salak 2020ko ekainaren 15ean emandako 137/2020 Epaiaren bidez berretsi zuen akordioa eta ezetsi zuen aurkeztutako errekurtsoa. Gobernuak nola aldeztuko du prozesualki 64/2019 akordioa?

Hori dela-eta, 10-21/PES-00149 galdera idatzia emandako erantzuna ikusteko eskatzen dizugu.

4.- Baztango Aroztegia Jauregiaren inguruan sustatutako turismo-, hotel-, kirol- eta egoitza-eremuaren Udalez gaindiko Plan Sektorialaren Konpentsazio Batzordeak kasazio-errekurtsoa aurkeztu zuen Nafarroako Auzitegi Nagusiko administrazioarekiko auzien salak 2020ko ekainaren 15ean emandako 137/2020 Epaiaren aurka. Nafarroako Gobernuaren alderdi errekurritu gisa pertsonatuko al da Nafarroako Kontratu Publikoen Administrazio Auzitegiaren ebazpenen defentsan,

auzitegi hori Ekonomia eta Ogasun Departamentuaren mendeko administrazio-organoa den aldetik?

Administrazio hau ez da alderdi izan administrazioarekiko auzien prozesuan (bidenabar esanda, ez LAB sindikatua ez eta Baztango Udala ere ez ziren prozesu horretan pertsonatu). Horrenbestez, Auzitegi Goreneko Administrazioarekiko Auzien Salak ez dio Nafarroako Gobernuari eskatu pertsonatu dadin. Logikoa da hori, zeren eta Administrazio honek ez baitu esku hartu urbanizazio-proiektuan jasotzen diren obrak esleitzeko prozeduran. Hortaz, Gobernuak ez du interesdunaren izaerarik hor.

Hori dela-eta, Auzitegi Gorenaren 2014ko urriaren 21eko epaiak honako hau xedatzen du: Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioaren uztailaren 13ko 29/1998 Legeko 89.3 artikulua legitimazio aktiboa dela-eta ezartzen duenez, "errekurrituriko epaia edo ebazpena eman den prozeduran alderdi izan direnek jarri ahal izango dute kasazio-errekurtsoa"; hortaz, errekurtsoa paratu zaion administrazioak arrazoia du esaten duenean legitimazio aktiboa eta pasiboa, kasazio-

errekurtsoan, auzialdian alderdi izatetik heldu direla. Halere, sala horren epaiaren doktrinak benetako babes judizialerako eskubidearen aldeko pro actione interpretazio batean zehazten du, jurisdikzioa izateko eskubideari dagokionez, kasazio-errekurtsoa aurkezteko gaituta daudela, errekurtsoaren xede izan zen ebazpena eman zen administrazioarekiko auzi-errekurtsoan alderdi izandakoez gain, alderdi izan zitezkeenak ere, eta horrek ez duela esan nahi errekurtsoan nahitaez pertsonatu behar zirenik epaia eman aitzin, baina bai, noski, kasazio-errekurtsoa prestatzeko legez ezarritako epearen barruan «a quo» prozesuan, zeina zenbatzen hasten baita jarduketak iraun bitartean pertsonatu zirenei azken jakinarazpena egin zitzaizenean.

Hortaz, auzialdian pertsonatu gabeko kasuetan ere onartzen du jurisprudentiak kasazio-errekurtsoan legitimazio aktiboa izatea. Aukera hori ez da jasotzen, ordea, legitimazio pasiboaren kasuan.

Iruñean, 2021eko ekainaren 9an

Lurraldearen Antolamenduko, Etxebizitzako, Paisaiako eta Proiektu Estrategikoetako kontseilaria: José María Aierdi Fernández de Barrena

Galdera, tresneria medikoaren erosketa dela-eta Nafarroako Osasun Zerbitzuan detektatutako ustezko delituari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Juan Luis Sánchez de Muniáin Lacasia jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, tresneria medikoaren erosketa dela-eta Nafarroako Osasun Zerbitzuan detektatutako ustezko delituari buruzkoa. Galdera 2021eko maiatzaren 21eko 67. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2021eko ekainaren 17an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Navarra Suma (NA+) talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Juan Luis Sánchez de Muniáin jaunak 10-21-PES-00174 espedienteko galdera idatzia egin du, zeinaren bidez "informa-

zioa eskatzen baitu jakiteko ea epaitegiak ikerketarik ireki ote duen tresneria medikoaren erosketa dela-eta Nafarroako Osasun Zerbitzuan detektatutako ustezko delitu batengatik...". Hona Nafarroako Gobernuko Osasuneko kontseilariak horri buruz ematen dion informazioa:

1. Ba al dakizu epaitegiak ikerketarik ireki ote duen tresneria medikoaren erosketa dela-eta Nafarroako Osasun Zerbitzuan detektatutako ustezko delitu batengatik?

Bai, badakigu.

2. Nola jakin zenuten?

Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuan ez dugu Epaitegiaren jakinarazpen ofizialik jaso. Bihotzaren Arlo Klinikoko arloko funtzionario fakultatibo espezialista batek jakinarazi zigun Nafarroako Arartekoari agertu ziola gertatutakoa, eta erakunde horrek Fiskaltzari eman ziola horren berri.

3. Noiztik?

Funtzionario horrek informazio erreserbatuko prozesuko agerraldian jakinarazi zuen (2021eko otsailaren 2an).

4. Osasunbidea bera edo Nafarroako Gobernua izan al zen gertakarien berri fiskaltzari eman ziona?

Ez. Esan dugun bezala, erakunde honen enplegatu batek eman zien gertakarien berri Arartekoari, eta azken horrek Fiskaltzari.

5. Osasunbidea edo Nafarroako Gobernua al da salatzailea?

Ez.

6. Hala bada, noiz pertsonatu da prozeduran?

Nafarroako Gobernua ez da pertsonatu.

7. Osasunbideko zenbait arduradunek gertakarien berri izatekotan, harremanetan jarri al dira salaketa jarri duen pertsonarekin edo pertsonekin?

Bai.

2019ko ekainaren 6an bilera bat izan zen, "IHT pizgarriengatik Hemodinamikan izandako gatazkari buruz" hitz egiteko. Bilera horretan honako hauek egon ziren Bihotzaren Arlo Klinikoko zuzendaria, Hemodinamika Ataleko burua, eta Zainketa Koronarioen Unitateko eta Arritmien Ataleko burua eta atalburu-lanak egiten zituzten lau fakultatiboak.

2020ko maiatzaren 20an, 12:00etan, salatzailearen eta Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko Profesionalen zuzendariaren arteko bilera bat izan zen.

2020ko ekainaren 23an, 12:00etan, salatzailea eta bere abokatuak O-NOZeko Profesionalen zuzendariarekin eta Nafarroako Ospitaleguneko kudeatzailearekin bildu ziren, O-NOZeko Zerbitzu Zentraletan.

2020ko urriaren 7an, 14:00etan, honako hauek bildu ziren Nafarroako Ospitaleguneko Kudeatzailearen bulegoan: salatzailea, Nafarroako Ospitaleguneko kudeatzailea, Errazte Lantaldea (esku-hartze/errazte prozesu bat izan zen, Hemodinamika Atalean lan-harremanetan zegoen egoera zailarengatik), Lan Arriskuen Prebentzioko Zerbitzua eta Bihotzaren Arloko Zuzendaritza.

Azkenean, honako hauen arteko bilera bat izan zen 2020ko azaroaren 16an, 12:00etan, O-NOZeko Zerbitzu Zentraletan: salatzailea eta bere abokatuak, O-NOZeko Araubide Juridikoaren Zerbitzuko burua, erakunde bereko Profesionalen

zuzendaria eta Nafarroako Ospitaleguneko kudeatzailea.

Gainera, informazio erreserbatuko prozesuaren barruan, salatzaileak agerraldia izan zuen 2021eko otsailaren 2an.

8. Hala bada, Osasun Departamentuko edo Osasunbideko zuzendaritzako zein kidek dute gertakarien berri? Noiztik? Nola izan dute horren berri (hitzez, modu presentzialean, postaz, jakinarazpen bidez)?

Bihotzaren Ataleko Zuzendaritzak gutxienez ere 2019ko ekainaren 6tik jakin zuen. Ez dakigu informazioa nola jakinarazi zitzaion Ataleko zuzendariari.

Profesionalen Zuzendaritzak eta Nafarroako Ospitaleguneko Kudeatzaileak, funtzionario horren eta Profesionalen Zuzendaritzaren arteko bileraren ondoren izan zuten salatzaileak 2020ko maiatzetik adierazitako gertakarien berri.

9. Ba al dakizue salatzaileen artean Osasunbideko funtzionario fakultatiborik ba ote dagoen?

Salatzaile bakarra Nafarroako Ospitaleguneko funtzionario fakultatibo bat da. Zorrotz hartuta, eta dakigunaren arabera, ez zen bera izan Fiskaltzan salaketa aurkeztu zuena; izan ere, egitateak Nafarroako Arartekoari jakinarazi zizkion, eta horrek Fiskaltzari helarazi zion.

10. Ba al dakizu praktika horiek salatu edo jakinarazi dituen funtzionarioen batek helarazi ote duen salaketa beste organismo edo erakunde batzuetara?

Bai. Nafarroako Arartekoari egindako jakinarazpenaz gain —Arartekoak, gero, Fiskaltzari eman zion horren berri—, funtzionarioak Sociedad Española de Cardiología-Asociación de Cardiología Intervencionista elkarteari eta Sendagileen Elkargo Ofizialeko Deontologia Batzordeari ere helarazi die salaketa.

11. Osasunbideak edo Osasun Departamentuak ireki al du barneko ikerketa arauturik gertaturikoa argitzeko eta erator litezkeen erantzukizunak zehazteko?

Bai.

12. Hala baldin bada, noiz?

Nafarroako Ospitaleguneko kudeatzailearen 2021eko urtarrilaren 14ko 3/2021 Ebazpenaren bitartez egin zen. Ebazpenak ezartzen du informazio erreserbatuko prozesu bat izanen dela, Nafarroako Ospitaleguneko Bihotzaren Arlo Klinikoko Hemodinamika Ataleko barne gatazkako egoerak

eta gertaturiko gainerako gorabeherak argitze aldera.

13. Ba al dakizue praktika horiek salatu edo horien berri eman duen funtzionario fakultatiboren batek eraldatuta ikusi ote duen bere lan-jarduera (beste lanpostu bat esleitzea, programazioa, ordu-tegi aldaketa, eta abar) bere nagusiei aipatu gertakari eta praktiken berri eman ondoren?

Errazte-prozesua egin zuen enpresak eta Laneko Arriskuen Prebentziorako Zerbitzuak emandako gomendioen ondorioz, eta tentsio-egoera hori larriagotu daitekeelakoan, aldaketa batzuk egin dira zerbitzuan, bi profesionalengan eragina dutenak.

14. Osasunbideko zuzendaritzako kideek galderaren xedea den gaiari buruz duten ezagutzaren edo informazioaren arabera (Nafarroako Osasun Zerbitzuaren balizko delitu-ikerketa), gertakariak ba al dute zerikusirik materiala enpresa farmazeutiko edo ekoizle edo hornitzaile jakin batzuei erosi izanarekin?

Gertaerek zerikusia dute material sanitarioko enpresa batek ustezko ordainketa irregularrak jasotzeko Hemodinamikako Ataleko sendagile bati

egindako proposamenarekin. Gero, fakultatibo horrek proposamena Ataleko gainerako lankideei helarazi zien, zeren eta enpresaren proposamena lantaldeko gainerako kideentzat ere bai baitzen.

15. Zer erabaki hartu dituzte Osasunbideko arduradunek edo Nafarroako Gobernuak gertatutakoaren berri izan ondoren?

Enpresa farmazeutikoak kobrantza irregularrak jasotzeko egindako eskaintzaren salaketari dagokionez, hainbat bilera egin dira gertakariak salatu dituen pertsonarekin, eta informazio erreserbatuko prozesu bat izan da, gertaerak ikertzeko.

Horrez gain, eta ez hain zuzen ere profesional horrek egindako salaketatik, baizik eta atal honetan bizi den tentsio-egoeratik, kanpoko enpresa batek errazte/esku-hartze prozesu bat egin du Laneko Arriskuen Prebentziorako Zerbitzuak gaia aztertu ondoren.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2021eko ekainaren 16an

Osasuneko kontseilaria: Santos Induráin Orduna

Galdera, emakume ezkongabeek *in vitro* ugalketarako tratamendua eskuratzeari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin María Luisa De Simón Caballero andreak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, emakume ezkongabeek *in vitro* ugalketarako tratamendua eskuratzeari buruzkoa. Galdera 2021eko maiatzaren 21eko 67. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2021eko ekainaren 14an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Navarra Suma talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Cristina Ibarrola Guillén andreak 10-21/PES-00180 espedienteko galdera idatzia aurkeztu du, zeinaren bidez honako informazio hau eskatzen baitu: Noiz eguneratuko du Nafarroako Gobernuak Osasun Departamentuak 660E/2017 Foru Agindua, bermatzeko emakume ezkongabeek Osasunbideak eskaintzen duen *in vitro* ugalketarako tratamendua baliatzeko aukera dutela? Hona hemen Nafarroako Gobernuak Osasuneko kontseilariak horri buruz ematen dion informazioa:

Osasuneko kontseilariaren martxoaren 30eko 77E/2021 Foru Aginduaren bitartez egin du hori. Izan ere, harekin hasiera eman zitzaion Sexu- eta ugalketa-osasunaren arloko prestazio sanitarioen antolamendua ezartzen duen azaroaren 16ko 103/2016 Foru Dekretua aldatzeko proiektua egiteko prozedurari.

Geroztik, Gobernu Irekiaren Atarian, alde zureko kontsulta argitaratu zen, zeina apirilaren 6ra arte egon baitzen zabalik ekarpenak egin ahal izateko.

Argitaratu zen justifikazioak aipatzen zuen ezen, Nafarroan, Sexu- eta ugalketa-osasunaren arloko prestazio sanitarioen antolamendua ezartzen duen azaroaren 16ko 103/2016 Foru Dekretuak xede duela sexu- eta ugalketa-osasunerako eskubide eta prestazioen erabilera arautzea, Sexu- eta ugalketa-osasunari buruzko martxoaren 3ko 2/2010 Lege Organikoak ezarritako berdintasunaren ikuspegitik.

4.9 artikuluan, Nafarroako sexu- eta ugalketa-osasuneko zerbitzuen zorroa jasotzen du, eta

ugalkortasun- eta ugalketa-tratamenduen prestazioak aitortzen dizkie sexu bereko bikotekideekin bizi diren emakumeei, baina ez gizonezko bikotekiderik ez duten emakumeei.

Bestalde, Osasuneko kontseilariaren azaroaren 17ko 660E/2017 Foru Aginduak Nafarroako zerbitzu zorro osagarrian sartzeko, batetik, sexu bereko bikotekideekin bizi diren emakumeentzako edo bikotekiderik ez duten emakumeentzako ugalkortasun eta ernalketa tratamenduen prestazioak, eta, bestetik, erektzioaren disfuntzio iatrogenikoaren tratamendu farmakologikoa. 3. artikuluan aipatutako azaroaren 16ko 103/2016 Foru Dekretuaren bide beretik doa.

Halaber, LGTBI+ Pertsonen Berdintasun Sozialari buruzko ekainaren 19ko 8/2017 Foru Legeak, 18. artikuluan, LGTBI+ pertsonen ugalketaren eta genitalen esparruko osasun-laguntzari buruzkoan, aipatzen du bermatuta egonen dela ugalketa lagunduko teknikak erabiltzea, eta horien onuradun izanen direla haurdun gelditzeko gaitasuna duten LGTBI+ pertsona guztiak edo/eta haien bikotekideak, berdintasuneko eta diskriminaziorik ezeko araubidean.

Azkenik, Emakumeen eta Gizonen arteko Berdintasunari buruzko apirilaren 14ko 17/2019 Foru Legeak, 51.9 artikuluan, osasun arloko jarduketari buruzkoan, xedatzen du ezen Nafarroako Gobernuak bermatu egiten duela emakumeek eskubide osoa izan dezatela giza ugalketa lagunduko teknikak eskuratu ahal izateko, edozein direla ere beren egoera zibila, sexu-orientazioa, jatorria edo identitatea.

Aipatutako aginduak kontuan hartuta, ikus daiteke, alde batetik, Nafarroako sistema publikoaren zorroak ugalketa lagunduko tratamenduak (ULT) sexu bereko bikotekidearekin bizi diren emakumei soilik aitortzen dizkiela, betiere urriaren 31ko SSI/2065/2014 Aginduan ezarritako teknika aplikatuaren irizpide orokorrak eta espezifikokoak betetzen badituzte; aitzitik, gizonezko bikotekiderik gabeko emakumei emailearen gameto bidezko intseminazio artifizialaren teknika soilik aitortzen zaie (eta ez *in vitro* ernalketa), betiere aplikatutako teknikaren irizpide orokorrak eta espezifikokoak betetzen badituzte. Ildo berekoa da Osasuneko kontseilariaren azaroaren 17ko 660E/2017 Foru Agindua.

Hala eta guztiz ere, Emakumeen eta Gizonen arteko berdintasunari buruzko apirilaren 14ko 17/2019 Foru Legeak eskubide hori aitortzen die emakume guztiei, haien egoera zibila, sexu-orientazioa, jatorria edo identitatea edozein izanik ere, baina laguntza bidezko ugalketaren arloko prestazioak jasotzeko eskubidea zein erabiltzailek izanen luketen zehaztean nolabaiteko zehaztugabetasuna dago, laguntza bidezko ugalketa-tekniken arloko Zerbitzuen Oinarrizko Zorroa arautzen duen lege-esparru zabalagoa baitago, teknika horiek erabiltzeko irizpide orokorrak ezartzen dituena, eta beste muga batzuk ezartzen dituena, hala nola, emakumearen adina eta abar, urriaren 31ko SSI/2065/2019 Aginduaren arabera.

Lege-kontraesan horren aurrean, eta Konstituzioak aitortutako ekitate- eta berdintasun-printzipioak bermatze aldera, azaroaren 16ko

103/2016 Foru Dekretua aldatu beharra dago, bakarrik dauden emakumeek gainerako pazienteen baldintza berberetan eskura ditzaten ugalketa-osasunaren arloko prestazioak.

Aurretiazko kontsultaren epean ez da ekarpenik egin. Une honetan, badago prestazioak ekar lezakeenaren balorazio ekonomiko bat. Hilabete horretan, aipatutako foru-dekretua aldatzeko proiektua argitaratuko da, jendaurrean jartzeko, aldaketa 2021. urtean ahalik eta lasterren onartzeari begira.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2021eko ekainaren 11n

Osasuneko kontseilaria: Santos Induráin Orduna

Galdera, Osasun Aholkuaren Zerbitzuaren 948290290 telefono zenbakian eta 948370120 telefono zenbakian COVID-19aren aurkako txertoa dela-eta artatu gabeko deiei buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Cristina Ibarrola Guillén andreak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Osasun Aholkuaren Zerbitzuaren 948290290 telefono zenbakian eta 948370120 telefono zenbakian COVID-19aren aurkako txertoa dela-eta artatu gabeko deiei buruzkoa. Galdera 2021eko maiatzaren 21eko 67. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2021eko ekainaren 14an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Navarra Suma talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Cristina Ibarrola Guillén andreak 10-21-PES--00181 espedienteko galdera idatzia aurkeztu du. Horren bidez "Informazioa eskatzen du 948290290 eta 948370120 telefono-zenbakietan guztira artatu gabeko dei-kopuruari buruz". Hona Nafarroako Gobernuko Osasuneko kontseilariak horri buruz eman beharreko informazioa:

Artatu GABEKO deiak ezin dira zenbatu.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2021eko ekainaren 11n

Osasuneko kontseilaria: Santos Induráin Orduna

Galdera, Kulturen arteko Bitartekaritza Zerbitzuak COVID-19arekiko sentsibilizazio sare bat abian jartzeari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Jorge Esparza Garrido jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Kulturen arteko Bitartekaritza Zerbitzuak COVID-19arekiko sentsibilizazio sare bat abian jartzeari buruzkoa. Galdera 2021eko maiatzaren 21eko 67. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2021eko ekainaren 10en

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Hona Nafarroako Gobernuko Migrazio Politiketako eta Justiziako kontseilariaren erantzuna, Jorge Esparza jaunak honako formulazioarekin aurkezturiko idatzizko erantzunerako galderari (10-21/PES-00182) dagokienez:

1.- Zer ekintza gauzatu ditu Kulturen arteko Bitartekaritza Zerbitzuak galdera hau egiten den egunera arte COVID-19arekiko sentsibilizazio sare bat abian jartzeko?

2.- Bukatutzat ematen dira alor horretako ekintzak edota gehiago gauzatzea aurreikusten da?

3.- Zer balorazio egiten da ekimen horren inguruan?

Erantzuna

Migratzaileak COVID-19a dela-eta sentsibilizatzeko sareak Nafarroako Gobernuko Kultura arteko Bitartekaritza eta Esku-hartze Komunitarioaren Zerbitzuaren eta Tuterako Osasun Barrutiaren arteko lankidetzatik sortu den esku-hartze komunitarioko prozedura baten emaitza dira.

Bitartekaritza Zerbitzuari esku hartzeko aurretiatzeko eskabideak helarazi zizkion zenbait toki entitatek; bere esperientzian oinarrituta, lider modura hartuak ziren migratzaileak hautatu zituen, eta koordinazio estuan jardun zuen Tuterako Osasun Barrutiarekin.

Geroago, kultur edo genero aniztasuna dela-eta profilen bat sartu gabe zegoela detektatuz gero, taldekideen euren bidez, ekimenarekin bat egin dezaketen pertsonak aurkitzen saiatzen dira. Kasu horretan, Bitartekaritza Zerbitzua horiekien harremanetan jartzen da eta parte hartzeko gonbita egiten die, esku-hartze komunitarioko prozedura zertan datzan azaldu ostean.

Bestalde, Kultura arteko Bitartekaritza eta Esku-hartze Komunitarioaren Zerbitzuak funtsezko zeregina izan zuen tokiko lider horiei emandako prestakuntzan. Talde horiek sortu zirelarik, prestakuntza/informazio saio bat egin zen, esku-hartze komunitarioko prozedura azaltzeko eta parte-hartzaileei gaixotasunari, protokolo nahiz neurriei, informazio-iturriei eta sartzeko moduei buruzko prestakuntza arina emateko.

Osasun-neurrien aldakortasuna aldakortasun, saioa COVID-19ari buruzko informazio zehatza lortzeko moduari eta sentsibilizatzeko sareen bidez informazioa partekatze eta eskatzeko moduari buruzkoa izan zen batik bat. Saioa Santiago Urmenetak (Tuterako Osasun Barrutiko gizarte-langilea) eta Mohamed Amnayk (Kultura arteko Bitartekaritza eta Esku-hartze Komunitarioaren Zerbitzuko kultura arteko bitartekaria) zuzendu zuten.

Ekimena Tuterako Osasun Barrutira mugatzen da une honetan. Halere, emaitza ona izan dela ikusita, beste toki batzuetara eta are beste arlo tematiko batzuetara ere eramateko aukera aztertuko da, osasun-arloaz eta, zehazki, COVID-19aren pandemiaren harago.

Izan ere, sentsibilizatzeko sare horien bidez jorratu den lan-sistema eredu gisa balia daiteke migratzaileentzat baliagarria izan litekeen edozein informazio helarazteko, ezein erakunde edo administrazioaren kanalak handituz; kasu honetan, Nafarroako Gobernuarenak.

Edozein mezu edo informazio askoz ere hobeki barneratzen du pertsona batek, baldin eta hori helarazten duena haren parekoa bada; eta, jakina, pertsonen arteko berehalako mezularitza-sistemek berebiziko garrantzia dute edukiak hedatzeko. Gure esku dago horien biraltasuna ekimen eta balio positiboen bidez baliatzea, erkidegoa eta bizikidetasuna eraikitze eta migratzaileei eta, oro har, Nafarroako herritarrei beren eskubideei, betebeharrei nahiz eskura dauzkaten baliabideei buruzko informazioa hobeki emateko.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2021eko ekainaren 10ean

Migrazio Politiketako eta Justiziako kontseilaria: Eduardo Santos Itoiz

Galdera, Caparrosoko udalerrian dagoen esnetarako behi-azienden instalaziorako Valle de Odieta SCLri ingurumen-baimen integratua emateari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Adolfo Araiz Flamarique jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Caparrosoko udalerrian dagoen esnetarako behi-azienden instalaziorako Valle de Odieta SCLri ingurumen-baimen integratua emateari buruzkoa. Galdera 2021eko maiatzaren 21eko 67. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2021eko ekainaren 14an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Adolfo Araiz Flamarique jaunak 10-21-PES-00198 espedienteko galdera idatzia egin du Caparrosoko udalerrian dagoen esnetarako behi-azienden instalaziorako Valle de Odieta SCLri ingurumen-baimen integratua emateari buruz. Hona hemen Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilariaren erantzuna:

1.- Aurreikusita al dauka departamentuak, ingurumen-baimen integratuaren ofiziozko aldaketa dela-eta, aldaketa horretan planteatuko diren gaien ingurumen-inpaktuaren ebaluazioa ere egin dadila?

Ingurumenaren eta Uraren zuzendari nagusiaren azaroaren 11ko 2275/2009 Ebazpenaren bitartez ingurumen baimen integratua eman eta Ingurumen eraginaren adierazpena egin zen Caparrosoko udal mugapean jarriko diren esne-behien abeletxe baterako (3.450 esne-behi) eta hondakin organikoen biometanizazio planta baterako.

2013-01-18an, titularrak ingurumen-baimen integratua aldatzeko eskatu zuen, 3.450 behi-esne helduko kopurua handitu eta 7.200 behi-esne heldu eduki ahal izateko (abeltegirako 12 nabe), eta biometanizazio-plantaren funtzionamendua aldatzeko, erregimen termofiloa ezarri.

Aldaketa hori funtsezkotzat jo zenez, abenduaren 28ko 93/2006 Foru Dekretuaren bidez onetsitako martxoaren 22ko 4/2005 Legea garatzen duen Erregelamenduaren 24. artikuluari jarraituz,

beste ingurumen-baimen integratu bat behar zen instalazio osorako.

Ingurumena babesteko esku-hartzeari buruzko martxoaren 22ko 4/2005 Legea garatzen duen Erregelamenduan ezarritakoaren arabera izapide-tu zen espediente, eta ingurumen-inpaktuaren ebaluazioaren arloko jarduketak sartu ziren prozeduran.

Ingurumeneko eta Lurraldearen Antolamenduko zuzendari nagusiaren urriaren 30eko 850E/2018 Ebazpenaren bitartez, ukatu egin zen instalazioan funtsezko aldaketa egiteko ingurumen-baimen integratu berriaren eskaera.

Nafarroako Justizia Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salaren abenduaren 21eko 333/2020 epaiaren bitartez, partzialki baietsi zen Hibridación Termosolar Navarra SL eta Valle de Odieta SCL enpresen administrazioarekiko auzi-errekurtsoa, Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioeko kontseilariaren martxoaren 6ko 25E/2019 Foru Aginduaren aurka aurkeztutakoa. Foru agindu horren bidez ezetsi egin zen ingurumen-baimen integratu berria ukatzen zuen Ingurumeneko eta Lurraldearen Antolamenduko zuzendari nagusiaren urriaren 30eko 850/2018 Ebazpenaren aurka aurkeztutako gora jotzeko errekurtsoa.

Nafarroako Justizia Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salaren abenduaren 21eko 333/2020 epaiak baliogabetu egiten du Ingurumeneko eta Lurraldearen Antolamenduko zuzendari nagusiaren urriaren 30eko 850E/2018 Ebazpena, Zuzenbidearen arabera ez izateagatik, eta aitortu egiten du demandatzaileak daukan eskubidea, eskatu duen ingurumen-baimen integratua jasotzekoa, 2015-12-22ko aldeko ebazpen-proposamenean jasotako baldintzetan, horretan baimena emateko bete beharreko baldintzak ezartzen baitira.

Horrenbestez, Nafarroako Justizia Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salaren abenduaren 21eko 333/2020 epaia betez, Ingurumeneko zuzendari nagusiaren martxoaren 12ko 222E/2021 Ebazpenaren bitartez, ingurumen-baimen integratu berria eman zitzaion, eta horrek babesa ematen dio 2013-01-18an eskatutako instalazioaren funtsezko aldaketari, 2015eko aben-

duaren 22an jakinarazitako aldeko ebazpenaren proposamenean jasotako baldintzetan.

2015eko abenduaren 22an jakinarazitako aldeko ebazpenaren proposamenaren oinarri izan zen dokumentazio teknikoaren antzintasuna eta data horretatik igaro den denbora kontuan hartuta, beharrezkotzat jo da ingurumen-baimen berria ezarritako baldintza jakin batzuk berrikustea, garatutako jarduerak gaur egun eskuragarri dauden teknikarik onenetara egokitzeko.

Zehazki, honako hauek berrikusi nahi dira: behi-aziendaren ustiategiko hondakin-uren eta simaurren kudeaketa, digestoreen funtzionamendu-araubidea eta biometanizazio-plantan ekoiztutako biogasaren bidez elektrizitatea ekoizteko instalazioa, biometanizazio-plantan loritutako digestatoaren ezaugarriak, eta simaurra eta digestatoa ekoizteko eta kudeatzeko plana, ongari gisa nekazaritza-erabileraren bidez balorizatze baldintzak ezartzen dituen.

Hala, Ekonomia Zirkularraren eta Klima Aldaketaren Zerbitzuko zuzendariaren maiatzaren 20ko 108E/2021 Ebazpenaren bidez, ingurumen-baimen integratua ofizioz aldatzeko prozedura hastea erabaki da.

Beharrezko azterketa teknikoa amaitu ondoren, instalazioen funtzionamenduak bete beharko dituen baldintza berriak zein izanen diren zehaztuko da, eta epe bana ezarriko da, bai titularrak baldintza berriak betetzeko instalazio-egokitzapenaren proiektua aurkezteko, bai egokitzapen-proiektu hori materialki gauzatu eta abian jartzeko, hurrenez hurren.

Instalazioa egokitzeko proiektuaren ezaugarriak ezagutu ondoren, ingurumen-eragina ebaluatze prozedura arruntaren edo sinplifikatuaren mende dagoen erabaki ahal izanen da, kasuaren arabera, Ingurumen Ebaluazioari buruzko abenduaren 9ko 21/2013 Legearen 7. artikuluan xedatutakoa aplikatuta.

2.- Zer prozedura jarraituko du departamentuak ingurumen-baimen integratuaren ofiziozko aldaketa garatzeko?

Ekonomia Zirkularraren eta Klima Aldaketaren Zerbitzuko zuzendariaren maiatzaren 20ko 108E/2021 Ebazpenaren bidez, ingurumen-baimen integratua ofizioz aldatzeko prozedura hastea erabaki da.

Ingurumen-baimen integratua ezarritako baldintzen ofiziozko aldaketa Ingurumena Babesteko Esku-hartzeari buruzko martxoaren 22ko 4/2005 Foru Legea garatzen duen Erregelamenduaren 28. artikuluan aurreikusitako administrazio-prozeduraren arabera egiten ari da.

3.- Aurreikusita al dauka departamentuak ofiziozko aldaketa horretarako egiten den prozeduran mekanismoak ezartzea, Ingurumenen Eragina duten Jarduerak arautzen dituen abenduaren 16ko 17/2020 Foru Legeak 4. artikuluan herritarrei aitortzen dien parte-hartze publikoa bermatzeko?

Ingurumena Babesteko Esku Hartzeari buruzko martxoaren 22ko 4/2005 Foru Legea garatzen duen Erregelamenduaren 28. artikuluan araututako administrazio-prozeduraren arabera, Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentuak egokitzat jotzen badu, aldaketa-espeditatea jendaurrean jarri ahal izanen da hamabost egunez, Nafarroako Aldizkari Ofizialean iragarri ondoren.

Ekonomia Zirkularraren eta Klima Aldaketaren Zerbitzuko zuzendariaren maiatzaren 20ko 108E/2021 Ebazpenak, zeinaren bidez erabaki baitzen hasiera ematea ingurumen-baimen integratua ofizioz aldatzeko prozedurari, bere azalpen-zatian aipatzen du ezen, ingurumen-baimen integratua ezarritako baldintzak aldatzen dituen ebazpen proposamena izan ondoren, espeditatea jendaurrean egonen dela hamabost egunez, Nafarroako Aldizkari Ofizialean iragarria izan ondoren.

Iruñean, 2021eko ekainaren 9an

Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilaria: Itziar Gómez López

Galdera, COVIDa dela-eta sentsibilizatzeko sareei buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Jorge Esparza Garrido jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, COVIDa dela-eta sentsibilizatzeko sareei buruzkoa. Galdera 2021eko maiatzaren 28ko 71. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2021eko ekainaren 17an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Hona Nafarroako Gobernuko Migrazio Politike-tako eta Justiziako kontseilariaren erantzuna, Navarra Suma talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Jorge Esparza jaunak honako formulazioarekin aurkezturiko idatzizko erantzunerako galderei (10-21/PES-00199) dagokie-nez:

1. Nork eta zer irizpideri jarraikiz erabaki du zein 6 herritan ezarriko den COVIDa dela-eta sentsibilizatzeko sarea?

2. Ekimen hori zergatik ez da zabaldu Nafarroako beste eremu batzuetara? Etorkezunean egiteko asmorik ba al dago? Hala baldin bada, zer epe darabilzue gogoan?

3. Nor eta nola arduratu da migratzaileen artean lidertzat hartzen duten pertsona hautatzeaz?

4. Zenbat lider eta zer herrialdetakoak ezarri dira 6 herri horietako bakoitzean?

5. Zer prestakuntza-mota eman zaie tokiko lider horiei? Nork eman du prestakuntza hori? Zenbat ordukoa izan da? Zer egunetan eta zer tokitan eman da?

Kontseilariak honako erantzun hau ematen du:

Migratzaileak COVID-19a dela-eta sentsibilizatzeko sareak Nafarroako Gobernuko Kultura arteko Bitartekaritza eta Esku-hartze Komunitarioaren Zerbitzuaren eta Tuterako Osasun Barrutiaren arteko lankidetzatik sortu den esku-hartze komunitarioko prozedura baten emaitza dira.

Osasun barruti hori oinarrizko zazpi osasun eskualdek osatzen dute (Tutera bitan banatuta dago: Tutera Ekialdea eta Tutera Mendebaldea), eta horregatik erabaki zen komenigarria zela oinarrizko osasun eskualde bakoitzeko herri bat aukeratzea.

Oinarrizko eskualde bakoitzaren barruan, atzerritarren kopuruari erreparatuta (Ribaforada), Bitartekaritza Zerbitzuan aurretiaz egindako esku-hartze eskabideei erreparatuta (Castejón, Cadreita eta Cintruénigo) eta COVID-19aren eraginari erreparatuta (Murchante) hautatu ziren herriak.

Ekimena Tuterako Osasun Barrutira mugatzen da une honetan. Ekimena Nafarroako Gobernuak COVID-19ari aurre egiteko jarduketara soziosanitarioak garatzeko Plan Globalean sartzen da, Osasunaren Sustapeneko eta Esku-hartze Komunitarioko ekintza-lerro gisa. Xede du migratzaileek gaixotasuna pairatzeko arrisku handiagoa izateko faktore sozial eta kulturalak minimizatzea. Emaitza ona izan dela ikusita, beste eremu batzuetara eramateko aukera aztertuko da.

Migratzaileen artean lidertzat hartzen dituzten pertsonak hautatzeko prozesuari dagokionez esan beharra dago Kultura arteko Bitartekaritza eta Esku-hartze Komunitarioaren Zerbitzuak eskarmentu handia duela eremu horretan eta, hartara, "lider naturalaren" profilari egokitzen zaizkion pertsonak dagoeneko aurkitu eta identifikatu dituela. Hortaz, kultura arteko bitartekarien irizpidei jarraikiz egin zen hautaketa.

Talde horiek, gainera, ez dira talde itxiak; hartara, kultur edo genero aniztasuna dela-eta profilen bat sartu gabe dagoela detektatuz gero, taldekideen euren bidez, ekimenarekin bat egin dezaketen pertsonak aurkitzen saiatzen dira. Kasu horretan, Bitartekaritza Zerbitzua horiekin harremanetan jartzen da eta parte hartzeko gonbita egiten die, esku-hartze komunitarioko prozedura zertan datzan azaldu ostean.

Izan ere, arestian emandako arrazoiak direla-eta, taldeen osaera aldatuz joan da proiektuan abian jarri zenez geroztik iragandako hiru hilabete hauetan. Ondoko taulan ikus daiteke talde horien ekainaren 1eko osaera:

CADREITA TALDEKO KIDEAK			
Guztira	5	0	5
JAIOTERRIA	GIZONEZKOAK	EMAKUMEZKOAK	GUZTIRA
Maroko	5	0	5
NAZIONALITATEA	GIZONEZKOAK	EMAKUMEZKOAK	GUZTIRA
Maroko	4	0	4
Espainia	1	0	1
BIZILEKUA	GIZONEZKOAK	EMAKUMEZKOAK	GUZTIRA
Cadreita	5	0	5
ADINA	GIZONEZKOAK	EMAKUMEZKOAK	GUZTIRA
30-44	4	0	4
45 -64	1	0	1
CASTEJÓN TALDEKO KIDEAK			
Guztira	5	0	5
JAIOTERRIA	GIZONEZKOAK	EMAKUMEZKOAK	GUZTIRA
Maroko	3	2	5
NAZIONALITATEA	GIZONEZKOAK	EMAKUMEZKOAK	GUZTIRA
Maroko	2	2	4
Espainia	1	0	1
BIZILEKUA	GIZONEZKOAK	EMAKUMEZKOAK	GUZTIRA
Castejón	3	2	5
ADINA	GIZONEZKOAK	EMAKUMEZKOAK	GUZTIRA
30-44	2	2	4
45 -64	1	0	1
CINTRUÉNIGO TALDEKO KIDEAK			
Guztira	7	1	8
JAIOTERRIA	GIZONEZKOAK	EMAKUMEZKOAK	GUZTIRA
Maroko	5	0	5
Mali	1	1	2
Senegal	1	0	1
NAZIONALITATEA	GIZONEZKOAK	EMAKUMEZKOAK	GUZTIRA
Espainia	5	0	5
Maroko	2	0	2
Mali	0	1	1
BIZILEKUA	GIZONEZKOAK	EMAKUMEZKOAK	GUZTIRA
Cintruénigo	7	1	8
ADINA	GIZONEZKOAK	EMAKUMEZKOAK	GUZTIRA
30-44	3	0	3
45 -64	3	0	3
Ez daki	1	1	1
MURCHANTE TALDEKO KIDEAK			
Guztira	4	2	6
JAIOTERRIA	GIZONEZKOAK	EMAKUMEZKOAK	GUZTIRA
Maroko	4	2	6
NAZIONALITATEA	GIZONEZKOAK	EMAKUMEZKOAK	GUZTIRA
Espainia	3	1	4
Maroko	1	1	2

BIZILEKUA	GIZONEZKOAK	EMAKUMEZKOAK	GUZTIRA
Murchante	4	2	6
ADINA	GIZONEZKOAK	EMAKUMEZKOAK	GUZTIRA
30-44	3	2	5
45 -64	1	0	1
RIBAFORADA TALDEKO KIDEAK			
Guztira	3	2	5
JAIO TERRIA	GIZONEZKOAK	EMAKUMEZKOAK	GUZTIRA
Maroko	2	0	2
Senegal	1	1	2
Bulgaria	0	1	1
NAZIONALITATEA	GIZONEZKOAK	EMAKUMEZKOAK	GUZTIRA
Maroko	2	0	2
Senegal	1	1	2
Bulgaria	0	1	1
BIZILEKUA	GIZONEZKOAK	EMAKUMEZKOAK	GUZTIRA
Ribaforada	3	1	4
Fustiñana	0	1	1
ADINA	GIZONEZKOAK	EMAKUMEZKOAK	GUZTIRA
30-44	1	1	2
45 -64	2	1	3
TUTERA TALDEKO KIDEAK			
Guztira	5	8	13
JAIO TERRIA	GIZONEZKOAK	EMAKUMEZKOAK	GUZTIRA
Brasil	0	2	2
Kolonbia	1	1	2
Maroko	3	1	4
Aljeria	1	0	1
Senegal	0	1	1
Ukraina	0	1	1
Ekuador	0	1	1
Nigeria	0	1	1
NAZIONALITATEA	GIZONEZKOAK	EMAKUMEZKOAK	GUZTIRA
Brasil	0	2	2
Kolonbia	1	1	2
Maroko	2	1	2
Aljeria	1	0	1
Senegal	0	1	1
Espania	1	0	1
Ukraina	0	1	1
Ekuador	0	1	1
Nigeria	0	1	1
BIZILEKUA	GIZONEZKOAK	EMAKUMEZKOAK	GUZTIRA
Tutera	5	8	13
ADINA	GIZONEZKOAK	EMAKUMEZKOAK	GUZTIRA
18-30	0	2	2
30-44	1	2	3
45 -64	2	4	6
45 -64	2	0	2

Jada adierazi denez, etengabe aldatzen diren taldeak dira, eta parte hartzen duten herrietako errealitatea islatzen duen genero nahiz kultur aniztasuna islatu dezaten saiatzen gara.

Tokiko lider horiei emandako prestakuntzari dagokionez, honako hau adierazi behar da: Talde horiek sortu zirelarik, prestakuntza/informazio saio bat egin zen, esku-hartze komunitarioko prozedura azaltzeko eta parte-hartzaileei gaixotasunari, protokolo nahiz neurriei, informazio-iturriei eta sartzeko moduei buruzko prestakuntza arina emateko. Osasun-neurrien aldakortasuna aldakortasun, saioa COVID-19ari buruzko informazio zehatza lortzeko moduari eta sentsibilizatzeko sareen bidez informazioa partekatzeko eta eskatzeko moduari buruzkoa izan zen batik bat.

Saioa Santiago Urmenetak (Tuterako Osasun Barrutiko gizarte-langilea) eta Mohamed Amnayk (Kultura arteko Bitartekaritza eta Esku-hartze Komunitarioaren Zerbitzuko kultura arteko bitartekaria) zuzendu zuten.

Saioen iraupena bi ordu ingurukoa izan zen, eta honako toki eta egunetan egin ziren:

- 2021/02/03 Cadreita. Kultur etxea
- 2021/02/04 Castejón. Kultur etxea
- 2021/02/10 Murchante Gizarte-etxea
- 2021/02/17 Tuterako Lourdes gizarte-etxea
- 2021/03/01 Tuterako Gurutze Gorria
- 2021/03/03 Ribaforada. Kultur etxea
- 2021/03/10 Cintruénigo. Udala

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2021eko ekainaren 17an

Migrazio Politiketako eta Justiziako kontseilaria: Eduardo Santos Itoiz

Galdera, azaroaren 11ko 82/2020 Foru Dekretuan Nafarroako Justizia Auzitegi Nagusiko lehendakariaren eta Foru Gobernuako Justizia kontseilariaren baterako lehendakaritza kentzeari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Jorge Esparza Garrido jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, azaroaren 11ko 82/2020 Foru Dekretuan Nafarroako Justizia Auzitegi Nagusiko lehendakariaren eta Foru Gobernuako Justizia kontseilariaren baterako lehendakaritza kentzeari buruzkoa. Galdera 2021eko maiatzaren 28ko 71. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2021eko ekainaren 17an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Nafarroako Gobernuako Migrazio Politiketako eta Justiziako kontseilariak, Navarra Suma talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Jorge Esparza jaunak honako formulazioarekin aurkezturiko idatzizko erantzunerako galderei (10-21/PES-00200) dagokienez:

1. Nafarroako Justizia Kontseilua sortzen duen azaroaren 11ko 82/2020 Foru Dekretuan kendu egin zen Nafarroako Justizia Auzitegi Nagusiko lehendakariaren eta Foru Gobernuako Justiziako kontseilariaren baterako lehendakaritza, zeina 2004ko dekretuan ezartzen baitzen. Zergatik?

2. Zure ustez, organo horretako kide izateak "baterako lehendakari" izateak baino "maila handiagoa" ematen al du?

Kontseilariak honako erantzun hau ematen du:

2004ko foru dekretuarekiko auzi hori dela-eta egindako aldaketa egin zen uste genuelako ez zela zuzena lehendakaritza partekatzea Estatuko beste botere batekin (Judiziala) funtzionalki Nafarroako Foru Komunitateko botere exekutiboari atxikitako organo batean; kasu honetan, Justizia Zuzendaritza Nagusiaren bidez.

Halere, azaroaren 11ko 82/2020 Foru Dekretuaren testuan Nafarroako Justizia Auzitegi Nagusiko lehendakariaren presentzia jaso zen, bete duen eginkizunarekiko errespetua erakustearren (beste horrenbeste gertatzen da, adibidez, Nafarroako Auzitegi Nagusiko fiskal nagusiarekin), egoki irizten dionean eskubide osoz parte hartu ahal izan dezan.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2021eko ekainaren 17an

Migrazio Politiketako eta Justiziako kontseilaria: Eduardo Santos Itoiz

Galdera, Nafarroan enpresek sozietateen gaineko zergan ordaintzen duten tasa efektiboari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Adolfo Araiz Flamarique jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroan enpresek sozietateen gaineko zergan ordain-

tzen duten tasa efektiboari buruzkoa. Galdera 2021eko maiatzaren 28ko 71. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2021eko ekainaren 22an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Hona Nafarroako Gobernuko Migrazio Politike-tako eta Justiziako kontseilariaren eran-tzuna, Navarra Suma talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Jorge Esparza jaunak honako formulazioarekin aurkezturiko idatzizko eran-tzunerako galderei (10-21/PES-00199) dagokie-nez:

1. Nork eta zer irizpideri jarraikiz erabaki du zein 6 herritan ezarriko den COVIDa dela-eta sentsibilizatzeko sarea?

2. Ekimen hori zergatik ez da zabaldu Nafarroako beste eremu batzuetara? Etor-kizunean egiteko asmorik ba al dago? Hala baldin bada, zer epe darabilzue go-goan?

3. Nor eta nola arduratu da migratzaileen artean lidertzat hartzen duten pertsona hautatzeaz?

4. Zenbat lider eta zer herrialdetakoak ezarri dira 6 herri horietako bakoitzean?

5. Zer prestakuntza-mota eman zaie tokiko lider horiei? Nork eman du presta-kuntza hori? Zenbat ordukoa izan da? Zer egunetan eta zer tokitan eman da?

Kontseilariak honako erantzun hau ematen du:

Migratzaileak COVID-19a dela-eta sentsibilizatzeko sareak Nafarroako Gobernuko Kultura arteko Bitartekaritza eta Esku-hartze Komunitarioaren Zerbitzuaren eta Tuterako Osasun Barrutiaren arteko lankidetzatik sortu den esku-hartze komunitarioko prozedura baten emaitza dira.

Osasun barruti hori oinarrizko zazpi osasun eskualdek osatzen dute (Tutera bitan banatuta dago: Tutera Ekialdea eta Tutera Mendebaldea), eta horregatik erabaki zen komenigarria zela oinarrizko osasun eskualde bakoitzeko herri bat aukeratzea.

Oinarrizko eskualde bakoitzaren barruan, atzerritarren kopuruari erreparatuta (Riba-forada), Bitartekaritza Zerbitzuan aurretiaz egindako esku-hartze eskabideei errepara-tuta (Castejón, Cadreita eta Cintruénigo) eta COVID-19aren eraginari erreparatuta (Murchante) hautatu ziren herriak.

Ekimena Tuterako Osasun Barrutira mugatzen da une honetan. Ekimena Nafarroako Gobernuak COVID-19ari aurre egiteko jarduketara soziosanitarioak garatzeko Plan Globalean sartzen da, Osasunaren Sustapeneko eta Esku-hartze Komunitarioko ekintza-lerro gisa. Xede du migratzaileek gaixotasuna pairatzeko arrisku handiagoa izateko faktore sozial eta kulturalak minimizatzea. Emaitza ona izan dela ikusita, beste eremu batzue-tara eramateko aukera aztertuko da.

Migratzaileen artean lidertzat hartzen dituzten pertsonak hautatzeko prozesuari da-gokionez esan beharra dago Kultura arteko Bitartekaritza eta Esku-hartze Komunitarioaren Zerbitzuak eskarmentu handia duela eremu horretan eta, hartara, "lider naturalaren" profilari egokitzen zaizkion pertsonak dagoeneko aurkitu eta identifikatu dituela. Hortaz, kultura arteko bitartekarien irizpidei jarraikiz egin zen hautaketa.

Talde horiek, gainera, ez dira talde itxiak; hartara, kultur edo genero aniztasuna dela-eta profilen bat sartu gabe dagoela detektatuz gero, taldekideen euren bidez, ekimenarekin bat egin dezaketen pertsonak aurkitzen saiatzen dira. Kasu horretan, Bitartekaritza Zerbitzua horiekin harremanetan jartzen da eta parte hartzeko gonbita egiten die, esku-hartze komunitarioko prozedura zertan datzan azaldu ostean.

Izan ere, arestian emandako arrazoiak direla-eta, taldeen osaera aldatuz joan da proiektuan abian jarri zenez geroztik iragandako hiru hilabete hauetan. Ondoko taulan ikus daiteke talde horien ekainaren 1eko osaera:

1. eranskina: Mozkinen tasa efektiboa, talde fiskalak eta talde fiskalen parte ez diren banakako sozietateak diskriminatuta. 20210etik 2019ra bitarteko zergaldiak.

NAFARROAKO ARAUDIA. (banakakoak eta taldeak)											
GALERA-IRABAZIEN KONTUAN EMAITZA POSITIBOA DUTEN AITORPENAK											
GUZTIRA	ALDIA										
	2009	2010	2011	2012	2013	2014	2015	2016	2017	2018	2019
Aitorpen kopurua	8.528	8.613	8.116	7.623	7.810	8.684	9.470	10.062	10.668	10.948	11.133
Zenbatekoa (galera-irabazien emaitza) >0	1.346.423.055	1.293.839.772	1.115.108.170	1.157.549.568	1.110.767.587	1.170.052.718	1.486.523.322	1.548.428.173	1.692.730.197	2.127.684.394	1.800.580.671
Kuota diferentzialaren zenbatekoa	180.912.992	182.130.712	148.089.030	150.716.232	142.171.882	158.001.810	153.195.326	181.715.096	212.778.323	243.349.924	249.794.428
Tasa efektiboa (galera-irabazien emaitza) >0	13,44%	14,08%	13,28%	% 13,02	12,80%	13,50%	% 10,31	11,74%	12,57%	11,44%	13,87%

NAFARROAKO ARAUDIA. (banakakoak eta taldeak)											
GALERA-IRABAZIEN KONTUAN EMAITZA POSITIBOA DUTEN AITORPENAK											
BANAKAKO ENPRESAK	ALDIA										
	2009	2010	2011	2012	2013	2014	2015	2016	2017	2018	2019
Aitorpen kopurua	8.481	8.550	8.050	7.565	7.749	8.610	9.388	9.968	10.571	10.839	11.014
Zenbatekoa (galera-irabazien emaitza) >0	1.253.012.259	1.074.063.047	969.527.256	1.030.757.676	932.041.518	953.316.386	1.233.422.148	1.214.339.413	1.455.127.521	1.840.336.895	1.461.047.222
Kuota diferentzialaren zenbatekoa	173.598.785	159.676.802	135.273.134	134.311.395	117.161.177	132.976.676	138.208.352	163.181.126	188.203.199	204.665.035	204.281.455
Tasa efektiboa (galera-irabazien emaitza) >0	% 13,85	14,87%	13,95%	13,03%	12,57%	13,95%	%11,21	13,44%	% 12,93	% 11,12	13,98%

TALDE FISKALAK	ALDIA										
	2009	2010	2011	2012	2013	2014	2015	2016	2017	2018	2019
Aitorpen kopurua	47	63	66	58	61	74	82	94	97	109	119
Zenbatekoa (galera-irabazien emaitza) >0	93.410.795	219.776.725	145.580.914	126.791.89	178.726.069	216.736.332	253.101.175	334.088.760	237.602.676	287.347.499	339.533.449
Kuota diferentzialaren zenbatekoa	7.314.206	22.453.910	12.815.896	16.404.837	25.010.705	25.025.134	14.986.973	18.533.970	24.575.123	38.684.889	45.512.973
Tasa efektiboa (galera-irabazien emaitza) >0	7,83%	% 10,22	8,80%	12,94%	13,99%	%11,55	5,92%	5,55%	% 10,34	13,46%	13,40%

Zenbatekoak eurotan (Nafarroako tributazioaren portzentajea aplikatuta)
Tasa efektiboa (galera-irabazien emaitza): Kuota efektiboa (galera-irabazien emaitza):
Datuen ustiapen-data: 2021eko ekaina

2. eranskina: Mozkinen gaineko tasa efektiboa, zerga-tasen arabera diskriminatuta.

NAFARROAKO ARAUDIA. (banakakoak eta taldeak)
GALERA-IRABAZIEN KONTUAN EMAITZA POSITIBOA DUTEN AITORPENAK

	ALDIA										
	2009	2010	2011	2012	2013	2014	2015	2016	2017	2018	2019
% 19											
Aitorpen kopurua							5.746	5.773	6.167	6.467	6.463
Tasa efektiboa (galera-irabazien emaitza) >0							% 9,90	12,69%	12,72%	12,66%	%11,85
% 20											
Aitorpen kopurua		1.789	1.609	1.116	1.158	4.630					
Tasa efektiboa (galera-irabazien emaitza) >0		12,34%	11,48%	13,89%	13,59%	%11,13					
% 23											
Aitorpen kopurua	5.030	3.535	3.389	3.525	3.666		1.755	1.829	1.924	2.033	2.139
Tasa efektiboa (galera-irabazien emaitza) >0	13,41%	14,57%	12,80%	12,11%	11,84%		%12,27	16,10%	15,30	14,40%	14,81%
% 25											
Aitorpen kopurua							1.288				
Tasa efektiboa (galera-irabazien emaitza) >0							%11,31				
% 27											
Aitorpen kopurua		656	655	491	507	1.314					
Tasa efektiboa (galera-irabazien emaitza) >0		20,57%	17,55%	% 17,87	17,15%	16,06%					
% 28											
Aitorpen kopurua	1.899	1.010	917	936	944			1.810	1.890	1.775	1.865
Tasa efektiboa (galera-irabazien emaitza) >0	20,51%	%19,96	17,77%	% 14,49	7,82%			12,80%	13,19%	%11,47	14,99
% 30											
Aitorpen kopurua	923	926	936	976	975	1.970					
Tasa efektiboa (galera-irabazien emaitza) >0	14,32%	15,54%	14,07%	14,99	15,52%	14,99					
Bestelakoak											
Aitorpen kopurua	676	697	610	579	560	770	681	650	687	673	666
Tasa efektiboa (galera-irabazien emaitza) >0	1,68%	7,59%	2,23%	1,68%	% 1,56	7,10%	1,96%	1,29%	2,06%	% 3,30	4,86%
GUZTIRA											
Aitorpen kopurua	8.528	8.613	8.116	7.623	7.810	8.684	9.470	10.062	10.668	10.948	11.133
Tasa efektiboa (galera-irabazien emaitza) >0	13,44%	14,08%	13,28%	% 13,02	12,80%	13,50%	% 10,31	11,74%	12,57%	11,44%	13,87%

Beste batzuk. c03 laukitxoan (zerga-tasa) daturik esleitura ez duten aitorpenen informazioa jasotzen du. (Bere berariazko kodetza dela-eta, kooperatibei eta lan-sozietateei dagozkie batik bat). Orobat jasotzen ditu c03 laukitxoko zerga-tasa jakin batzuei buruzko datuak, zeinetarako aitorpen-kopurua minoritarioa baita eta aldien arteko konparazio homogeneoa zailtzen baitu.

Tasa efektiboa (galera-irabazien emaitza): Kuota efektiboa (galera-irabazien emaitza):

Datuen ustiapen-data: 2021 ekaina

3. eranskina: Mozkinen gaineko tasa efektiboa, jarduera ekonomikoen gaineko zergako epigrafeen arabera diskriminatuta. 2019ko zergaldia

NAFARROAKO ARAUDIA. (banakakoak eta taldeak)				
GALERA-IRABAZIEN KONTUAN EMAITZA POSITIBOA DUTEN AITORPENAK				
	2019			
	9.5	Zenbatekoa (galera-irabazien emaitza) >0	Kuota diferenzialaren zenbatekoa	Tasa efektiboa (galera-irabazien emaitza) >0
10. Abeltzaintza independentea.	93	22.965.771	5.291.661	23,04 %
11. Energia eta ura	237	79.300.134	12.732.337	16,06 %
12. Mineral ez energ eta eratorritako prod erazi eta transferitu Ind kimikoa	144	119.447.151	29.255.697	24,49 %
13. Metalen eraldaketa-industriak Doitasun-mekanika	589	225.312.971	41.158.952	18,27 %
14. Bestelako manufaktura-industria batzuk	631	269.578.746	27.138.909	10,07 %
15. Eraikuntza	1.249	70.345.856	10.070.397	14,32 %
16. Merkataritza, jatetzeak eta ostatuak, konponketak	2.868	228.879.743	33.620.607	14,69 %
17. Garraioa eta komunikazioak	493	30.388.904	4.930.602	16,23 %
18. Finantza-erakundeak, aseguruak, enpresei emandako zerbitzuak eta alokairuak	2.691	446.040.110	48.266.866	10,82 %
19. Bestelako zerbitzuak	1.057	202.722.208	26.269.286	12,96 %
23. Bestelako industria batzuekin lotutako lanbidedunak	4	27.952	4.815	17,23 %
24. Eraikuntzarekin lotutako lanbidedunak	17	616.534	115.156	18,68 %
27. Finantza-jarduerekin, aseguruarekin eta alokairuekin lot lanbid	29	999.008	128.368	12,85 %
28. Bestelako zerbitzu batzuekin lotutako lanbidedunak	29	659.052	116.100	17,62 %
30. Jarduera artistikoak	33	1.729.917	384.577	22,23 %
Bestelakoak	969	101.566.615	10.310.098	10,15 %
GUZTIRA	11.133	1.800.580.671	249.794.428	13,87 %

Zenbatekoak eurotan (Nafarroako tributazioaren portzentajea aplikatuta)

Jarduera ekonomikoen gaineko zergako epigrafe bat baino gehiagotan alta emandako zergadunen kasuan horietako zaharrena soilik hartzen da aintzat.

Bestelako batzuk: adierazitako sailkapenen arabera epigrafe bat esleiturik ez daukaten aitorpenak eta hiru edo hiru baino epigrafe gutxiagoko aitorpenak.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2021eko ekainaren 17an

Migrazio Politiketako eta Justiziako kontseilaria: Eduardo Santos Itoiz

G saila:
TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA

Nafarroako kultur jarduera duintzeko, egonkortzeko, areagotzeko eta haren etorkizuna bermatzeko neurriak zehaztu eta adostearren sorturiko Ponentziaren txostena.

KULTURA ETA KIROL BATZORDEAK ONETSIA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Nafarroako kultur jarduera duintzeko, egonkortzeko, areagotzeko eta haren etorkizuna bermatzeko neurriak zehaztu eta adostearren sorturiko Ponentziaren txostena, Kultura eta Kirol Batzordeak onetsia.

Iruñean, 2021eko uztailaren 1ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

Nafarroako Foru Komunitatean kultur jarduera modu seguruan bultzatzeko txosten berezia

COVID-19aren krisiak agerian utzi du, berriro ere, Nafarroako kulturaren esparruaren egiturazko ahulezia eta, halaber, erakunde publikoek behar dituztela beren jarduketak berrikusi, dauden araudien hutsuneak aztertu, legedi indarduna garatu eta lege- eta aurrekontu-esparru berriak aktibatu.

Ponentzia honek onartzen du COVIDak ardura gehigarria eman diela administrazioei eta bestelako eragileei kultur jarduera abian jartzea eta haren jarraipenari buruz hartu beharreko erabakiak harterakoan. Ardura horri gehitu behar zaizkio pandemia dela-eta guneak segurtasunez kudeatzeari loturiko zailtasunak. Hemendik gure aitortza adierazi nahi diegu eta, halaber, agiri honetan zenbait neurri proposatzen ditugu, erantzukizuna partekatu eta erabakiak errazte aldera.

Nafarroako kultur jarduera duintzeko eta egonkortzeko Ponentzia hau eratu zenean, berau osatzen dugunok erabaki genuen lehentasuneko eta beharrezkoa zela lehenengo txosten bat egitea uda honen eta urtea bukatu arteko hilabeteen salbuespenezkotasanari buruz. Izan ere,

udan toki entitateak dira protagonistak, Foru Komunitateko kultur-programatzaile nagusiak baitira. Uda honetan, kultur jarduerak herritarrentzat eta sektorearentzat izanen duten garrantzia funtsezkoa izanen da kulturaren eremua bultzatzen jarraitzeko berreskuratzearen bidean, pandemiak horretarako aukera ematen digun neurrian.

Uda honetarako kultur programazioa prestatzeko sektoreak, elkarteak eta toki entitateak dituzten beharrianak eta eskaerak ezagutze aldera, galdetegi soil bat igorri zitzaion, bertan azal zezaten beharrianak eta eskakizun horiei erantzun ahal izateari begira egokitzat jotzen zutena.

Halaber, Nafarroako Udalerri eta Kontzejuen Federazioko presidenteari ponentzian agerraldia egiteko eskatu zitzaion, Nafarroako toki entitateen ikuspuntu orokorra emateko, programatzaile nagusiak diren aldetik. Gainera, 2021eko udan kultura-aukerak eskaintzeko aurkitzen ari ziren arazoak berri ematea nahi genuen.

Era berean, komenigarritzat jo zen Kultura eta Kiroleko kontseilariari eskatzea ponentzian agerraldia egiteko, erkidegoaren ikuspegi orokorra eman zezan, bai eta departamentuak Nafarroako udalerrietan programazio berekia eskaintzeko egiten aritu den lanaren berri ere.

Bi agerraldi horiek entzun ondoren, sektoreak erantzundako galdetegiak aztertu ditugu, zehazki 2021eko udan eta udazkenari buruzkoa, helburu nagusia baita uda honetako kultur programazioa modu berezian bultzatzea.

Horretarako, Nafarroako kultur jarduera duintzeko, egonkortzeko, areagotzeko eta haren etorkizuna bermatzeko neurriak zehaztu eta adosteko ponentziak erabaki du beharrezkoa dela premia-teea:

Nafarroako erakunde guztiei:

– Uda osoan protokolo/semaforo egonkor bat egon dadin, toki entitateei jarraibide argiak eman dizkiena, 2021eko uztailaren 1a baino lehenagoko egoeran eta Osasun Publikoaren Institutuak emandako irizpideetan oinarritua, kultur jardueren programazioa eta antolaketa erraztearren. Horren zehaztapenean kulturaren sektoreak parte hartu ahalko du.

– Barne Departamentuaren, Nafarroako Gobernuaren eta toki entitateen artean koordinazioa egon dadin, kultur jarduerak segurtasun-baldintzetan egin daitezten bermatzeko.

– Nafar profesionalen eta irabazi-asmorik gabeko elkarten kontrataziorako pizgarriak eman daitezten, herri- eta toki-kulturaren adierazpideen garapena indartzeko, programa propioen bitartez.

– Nafar folkloreak mahaia sor dadin, iraunkortasunez herri-kulturaren alde diharduten elkarre, federazio eta taldeekin.

– Gune berriak apailatzea, irekiak, alternatibak, kultur programaziorako erabilera eskasa izan dutenak. Horretarako, erakundeek burokrasia sinpletzeko salbuespenezko neurriak hartuko dituzte, orobat salbuespenezkoa den egoera batean.

– Deskontu-bonuen kanpaina bat taxutu dadin, Nafarroako lurralde osoan kultur kontsumoa pizteko.

Nafarroako Gobernuari:

– Zuzeneko solaskidetzarako bide bat ezar dezan, toki-administrazioetako uda-programazio kulturalari buruz aholku emateko edo zalantzak argitzeko.

– Herri txikietan kultur proposamen askotarikoa eskain dadin.

– Katalogo eguneratu bat jar dadin toki-entitateen eskura kulturaren atari digitalaren bitartez, Nafarroako hirugarren sektoreko kultur jardueren kontratazioa errazteko eta pizteko.

– COVID-19aren pandemiaren ondorioz jasandako galerengatiko laguntza ekonomikoak kultur sektorearentzat aktibatzeke konpromisoa.

Honako hau gomendatzea:

Nafarroako toki entitateei, Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioaren bidez:

– Udan zehar kultur programazioa areagotu dezaten Nafarroako herrietan.

– Herriko festetarako aurrekontua bete dadin, hori bideratuz udan zeharreko kultur arloko programazio eta jardueretara.

– Gune publiko, antzoki eta entzunaretoetarako sarbidea erraztea Nafarroako kultur elkarte eta enpresei.

